

1. ERASNKINA

AKORDIO ESPEZIFIKOA, TECNALIA RESEARCH & INNOVATION FUNDAZIOAREN ETA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ARTEKOA, BATERAKO DOKTOREGO TESI BATEN ESPARRUAN "proiektuaren izenburua" IKERKETA PROIEKTUA EGITEKO

Derion, 202_(e)ko _____aren __ (e)an

BILDURIK

Alde batetik, Inmaculada Arostegui Madariaga andrea, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO (aurrerantzean UPV/EHU) Ikerketaren arloko errektoreordea, erakunde horren izenean eta ordezkari gisa, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiak berari emandako ahalmenak direla bide (errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko erabakia, 2021eko otsailaren 12ko EHAA).

Bestetik, Idoia Juaristi Alberdi andrea, TECNALIA Research & Innovation Fundazioko (aurrerantzean TECNALIA) Erosketen ataleko zuzendaria, fundazio horren izenean eta ordezkari gisa, eta hitzarmen hau izenpetzeko ahalmen nahikoa duena, 2021eko otsailaren 10ean Bilboko Jaime Fernández Ostolaza notario jaunaren aurrean egindako eskritura publikoan emandako ahalmena dela bide (protokolo zk.: 172).

Aldeek, nahikoa gaitasun juridikoa aitortuta elkarri, dokumentu hau sinatu dute, eta, horretarako, honako hau

ADIERAZI DUTE

I. Bi aldeek lankidetzaren hitzarmen bat (aurrerantzean, hitzarmena) sinatu zuten ___(e)ko _____aren __ (e)an, UPV/EHUko doktorego programetan doktoregaien prestakuntza bultzatzeko doktorego tesiak lankidetzan eginez, aldeentzako interesekoak diren jakintza zientifiko-teknologikoaren arloetan.

II. Hitzarmen horren esparruan, TECNALIAk "proiektuaren izenburua" (aurrerantzean, PROIEKTUA) ikerketa proiektua garatzeko interesa du, UPV/EHUn egingo den doktorego tesi baten esparruan.

III. Bi aldeek akordio espezifikoa (AKORDIOA) sinatzea adostu dute, PROIEKTUA egiteko gidari izango dituzten baldintzak finkatzeko.

Hori dela eta, akordio hau formalizatuko dute klausula hauen arabera,

KLAUSULAK

1.- AKORDIOAREN HELBURUA

Akordio honen helburua UPV/EHUren eta TECNALIAren arteko lankidetzaren arautzea da, doktorego tesi baten barruan kokatutako PROIEKTUA garatzeko.

Proiektuaren irismena, helburuak eta faseak akordio espezifikoa honen I. eranskinean definitzen eta deskribatzen dira.

2.- ALDEEN KONPROMISOAK

Akordio honen bertutez, aldeek honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

2.1. UPV/EHUK:

a. Prestakuntza bidean den eta aukeratu den ikertzailea kontratatuko du PROIEKTUA garatzeko; zehazki, _____jaun/andrea ___(e)ko _____aren __ egunetik aurrera. Kontratazio hori prestakuntza bidean dauden ikertzaileak kontratatzeke indarrean den legediaren arabera egingo da, doktore aurreko kontratu baten

bidez, eta kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste urtebetez luzatzeko aukera edukita; luzapen hori I. eranskinean finkatutako PROIEKTUAREN helburuen lorpenak, Hitzarmenean eraturako Jarraipen Batzorde Mistoaren (aurrerantzean, Jarraipen Batzordea) aldeko txostenak eta luzapena egiteko unean akordio hau indarrean egoteak baldintzatuko dute.

b. PROIEKTUA garatzeko jakintzak, orientazioa, instalazioak, baliabideak eta bitartekoak emango ditu. _____jaun/andreari beharrezkoa duen laguntza eta orientazioa emango dio, bai eta doktorego tesiaren proiektua normaltasunez garatzeko beharrezkoak diren instalazioak, baliabideak eta bitartekoak erabiltzeko aukera ere.

c. Jarraipen Batzordeari uko egiteak, eteteak edo aldaketak eta bestelako gorabeherak jakinaraziko dizkio, horiek gertatu eta 10 lanegunen epean gehienez ere.

d. Jarraipen Batzordeari _____jaun/andreak doktore maila lortu duela jakinaraziko dio, hura lortu eta 10 lanegunen epean.

e. PROIEKTUAREN bigarren urtea amaitu aurretik, PROIEKTUAREN aurrerapenari buruzko txostena entregatuko dio TECNALIARI; bertan, PROIEKTUAN finkatutako helburuen lorpen maila adieraziko da, I. eranskinean aurreikusitakoaren arabera.

2.2. TECNALIA

a. PROIEKTUA finantzatzeko ekarpen ekonomiko bat egingo du, UPV/EHUri honako kopuru hauek ordainduta:

a. XXXXX € hiru/sei hiletan behin PROIEKTUAREN 1. urtean.

b. XXXXX € hiru/sei hiletan behin PROIEKTUAREN 2. urtean.

Atal honetan TECNALIAK hiru hiletan behin ordaindu beharreko zenbatekoak alde batera utzi gabe, ekarpen ekonomiko gehigarriak hitzartu ahal izango dira proiektua finantzatzeko, bi alderdiak ados jarrita. PROIEKTUAREN lehenengo urtea UPV/EHUK prestakuntza bidean den pertsonari eginiko kontratuaren hasierako datatik aurrera hasiko da zenbatzen.

Ordainketa horiek hiruhileko/seihileko bakoitzaren aurretik egingo dira, haien lehenengo 10 egun naturaletan, eta ordainketak akordio honen indarraldia baldintzatuko ditu. Akordioa behar baino lehenago ezeztatzen bada, TECNALIAren ordaintzeko betebeharra berehala etengo da, eta UPV/EHUK lehendik ordaindutako alditik indarraldian ez dagoen zatiari dagokion kopuru proportzionala itzuliko dio.

b. _____jaun/andreari beharrezkoa duen laguntza eta orientazioa emango dio, eta, ahal duen neurrian, bere instalazioetara sartzen eta TECNALIAN dauden bitartekoak, tresnak edo ekipoak erabiltzen utziko dio, baldin eta beharrezkoak badira PROIEKTUA normaltasunez garatzeko.

c. PROIEKTUAREN hirugarren urtea hastean, betiere I. eranskinean aipatzen diren helburuak bete badira, jarraipen batzordearen txostena aldekoa bada, eta akordio honek indarrean segitzen badu, TECNALIAK prestakuntzarako lan kontratua egingo dio _____jaunari/andreari, urte baterako, jardun profesionalean aritzeko.

3.- PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEAK

UPV/EHUREN izenean, _____jaun/andrea izango da doktorego tesiaren zuzendarikidea, eta TECNALIAren izenean, berriz, _____jaun/andrea.

4.- INDARRALDIA

Akordio hau sinatzen den unean sartuko da indarrean eta HIRU urteko indarraldia izango du.

Edonola ere, I. ERANSKINEAN jasotako proiektuaren mugarririk bete ahal izateko, bi aldeek indarraldiaren epe horren zenbaketa atzeratzea adostu dute, harik eta UPV/EHUren eta _____ jaun/andreaken arteko lan harremana hasten den arte.

Ondorio horri lotuta, akordioa berehala iraungiko da kontratutako doktoregaiak, _____ jaun/andreak, jarraituko ez duela jakinarazten den unean, aldeetako batek edo doktoregaiak berak hala eskatu duelako.

5.- JARRAIPENA

Proiektuaren jarraipena doktorego tesiaren zuzendariak egingo du, UPV/EHUren izenean, eta doktorego tesiaren zuzendarikideak, TECNALIAREN izenean, biek ala biek Jarraipen Batzordea informatuko dute.

6.- KONFIDENTZIALTASUNA

(kasu espezifiko bakoitzean zehaztu beharrekoa).

7.- AURRETIKO JAKINTZA ETA SORTUTAKO JAKINTZA. JABEGO INDUSTRIALA ETA INTELEKTUALA.

PROIEKTUAN Sortutako Jakintzak eman ditzakeen jabego industrial eta intelektualaren eskubideen ustiapena eta titulartasuna _____(r)enak (kasuan kasu zehaztu beharrekoak) izango dira.

8.- DIFUSIOA ETA ARGITALPENAK

8.1. Printzipio orokor gisa, PROIEKTUAN Sortutako Jakintzak jabego industrial eta intelektualaren eskubideen bidez sor dezakeen babeska kalte dezakeen informazioa ez zabaltzea adostu dute aldeek.

8.2. Proiektuan Sortutako Jakintza edo horri buruzko informazio oro argitaratu ahal izango da, baldin eta PROIEKTUAN diren aldeetako ordezkariak alde aurretik idatzizko baimena eman eta jakinarazi badute. Lankidetzari lotutako informazioa zabaltzeko asmoa duen aldeak argitaratu nahi den dokumentua igorriko dio beste aldeari, BERROGEITA BOST (45) egun lehenago. HOGEITA HAMAR (30) egunen epea ezarriko da, bidalketatik zenbatzen hasita, horri buruzko eragozpenak edo iruzkinak adierazteko. Isiltasuna ez da ulertuko, inola ere, difusiorako baimen tazitu gisa.

8.3. Difusio edo argitalpenerako eragozpen orok honako hauek eduki beharko ditu:

8.3.1. Dokumentua aldatzeko eskaera bat, bereziki horretan jasotako informazioaren argitalpenak edo difusioak Lankidetzan SORTUTAKO JAKINTZAK jabego industrialaren eskubideen bidez ustiatzeko aukerak gutxitu baditzake edo hirugarrenen interes legitimoak kaltetzen baditu.

8.3.2. Jabego industrialaren eskubideen bidez babeska daitezkeen informazioaren difusioa edo argitalpena atzeratzeko eskaera bat.

8.4. Argitalpenetan lanaren egileen aipamena errespetatuko da beti. Emaitzen difusio guztietan aipamen berezia egingo zaio beti lankidetzari.

9.- AUZIEN EBAZTEA

Aldeek akordio honen garapenean sor daitezkeen desadostasun guztiak adiskidetasunez konpontzeko konpromisoa hartzen dute.

Akordiorik lortu ezin bada, akordio honen exekuzioan edo interpretazioan sor daitezkeen auzi oro konpontzeko, aldeak Bilboko Epaitegien eta Auzitegien jurisdikzio eta eskumenen menpe geratzen dira, legozkiekeen beste edozein foruari berariaz uko eginez.

10.- AKORDIOA BERTAN BEHERA GERATZEA

Akordio hau bertan behera uzteko arrazoiak honako hauek izango dira:

1. Aldeak ados jartzea.
2. Aldeetako batek akordio honetan jasotako betebeharren bat ez betetzea, baldin eta ez betetze hori 30 egunen epean konpontzen ez bada hura modu frogagarrian jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.
3. Akordioaren xedea betetzeko ezintasuna.
4. Aldeetako batek akordioa salatzea, akordioaren hasierako epemuga bete aurreko edozein unetan. Salaketa hori modu frogagarrian komunikatu beharko zaio beste aldeari, akordioa eraginik gabe utzi nahi den data baino 30 egun lehenago gutxienez.

Akordioa bertan behera geratzen bada ere, konfidentziasunari eta emaitzen jabegoari eta ustiapenari buruzko klausulek indarrean jarraituko dute.

Honako hau irakurrita eta ados egonda, bi kopia sinatu dituzte, eragin bakarrerako, goian adierazitako lekuan eta egunean.

UPV/EHUren izenean
Sin. Inmaculada Arostegui Madariaga
Ikerketaren arloko Errektoreordea
Zuzendari Nagusia

TECNALIA Research and Innovation Fundazioaren izenean
Sin. Idoia Juaristi Alberdi,
Erosketen ataleko zuzendaria